

Familia estimatuak.

Itxaropenez eta desiorik onenekin ematen diogu hasiera atipikoa eta ziurrenik konplikatua izango den 2020-2021 Ikasturteari. Guztion artean, zentzuz beteriko ikasturtea eraiki ahal izango dugula uste dugu, gure ikasleen beharrei erantzungo dion ikasturtea sortzeko gai izango garelakoan.

Eusko Jaurlaritzak, orain arte, ikasturtea geletan hasteko aukera egin du eta gure helburua eskolaratze presentzial osoa egitea izango da, webean ageri den OOGk onartutako egutegia jarraituz. Horretarako, eta itzulera ahalik eta seugurena izan dadin, Hezkuntza Sailak argitaratutako ildoetan oinarritutako kontingentzia plana osatu dugu. Honek, errealitatera eramaten zailak izango diren hainbat neurri ezartzea eskatzen digu, eta Hezkuntza Elkartea osatzen dugun guztiontzat enbarazu maila bat suposatuko dute zalantzarik gabe.

Guztion laguntza handiena eskatu behar dizuegu, borondaterik onena eta protokoloan ezarritako arauen betetzea. Guztia ongi joan dadin, eskolan eta eskolaren inguruan mugitzen garen pertsona guztien laguntza ezinbestekoa dugu, bakoitzak bere onena ematea, alegia.

Irizpide orokor bezala, oinarrizko lau bete-behar hauetan indar egin nahi dugu:

- **Ohitura moduan, ikastolara etorri aurretik tenperatura hartu eta sintomarik txikienaren aurrean, ez etorri eskolara. Osasun Zentrora deitu eta dagokion tutoreari abisua eman.**
- **Maskara jantzita ekartzea derrigorrezkoa da eta horren erabilera egokia ziurtatu egin behar dugu (LH 1. mailatik gora). Bigarren maskara motxilan ekartzea aproposa izango da.**
- **Ordutegi, eremu eta eskolan egote minimoen inguruko arauak bete. Kontingentzia planean, espazioak, sarrera-irteera eta zirkulazioa agertzen dira (laster web orrialdean). Ikasleei gelan sarritan azalduko zaizkie.**
- **Mesedez telefono eta helbideak INIKA aplikazioan ondo daudela ziurtatu.**

Guraso Elkarateak eta batzordeak lanean ari dira jantokia eta beste zerbitzuak eskeini ahal izateko eta gurasoen artean ahalik eta lasterren zabalduko dute.

Irailaren 7an eskola-jarduera hasiko da Haur Hezkuntzatik DBHko 1. eta 2. mailetara arte. DBH 3 eta DBH 4 irailaren 15ean hasiko dira.

Sarrerako pilaketak ekiditzeko eta antolaketa era egokian ezagutarazteko asmoz, **HAUR HEZKUNTZAKO ETA LEHEN HEZKUNTZAKO ikasleak** lehenengo bi egunetan, **irailaren 7an**,

astlehena, eta 8an, asteartea, ordutegi honetan sartuko dira **beti JON ARROSPIDE** kaleko atetik:

9:00etan	LH4-LH5-LH6
9:15ean	LH1-LH2-LH3
9:30ean	HH4-HH5 HH2(1. txandakoak)
9:45ean	HH3

Ikasleekin **heldu bakar** sartuko da beharrezkoa denean eta pilaketak ekidituko direla zainduz. Ordukoak izatea erregutzen da; lehenago heldu ezker, eraikinaren kanpoko aldean ilera eta distantzia mantenduz itxaron beharko da emango diren zirkulatzeko eta kokatzeko jarraibideak bete arte.

Seinalatutako bidea jarraituko da, atzera egin gabe elkar topaketak eta gurutzaketak ekiditzeko. Berandu heldu ezker, ez da beste txandakoen aurretik igaroko. Itxaron egingo da distantziak mantenduz eta emango zaizkion jarraibideak beteko dira. **(Ez da idazkaritzako atea erabiliko)**

[Sarrera eta irteeretarako antolamendua](#)

Zentzuz beteriko ikasturtea opa nahi dizuegu, lasaia, ahal den heinean.

Jaso gure agurrik beroena.

Zuzendaritza Taldea

